



hirukide

D.B.H. BUKATU ONDORENGO HEZIKETA-IBILBIDEAK



g a i n b e r r i

Garmendiola aldapa 2
20400 TOLOSA

Tfnoa: 943 67 39 48

hirukidegainberri@hirukide.org

j e s u i t i n a k

San Frantzisko ibiltokia 12
20400 TOLOSA

Tfnoa: 943 65 10 27

hirukidejesuitinak@hirukide.org

e s k o l a p i o a k

San Blas auzoa 27 – Apdo. 117
20400 TOLOSA

Tfnoa: 943 67 03 11

hirukideeskolapioak@hirukide.org

www.hirukide.org

DBHko 4.eko ikasleen gurasoei:

Ikasturte hau aurrera doala ailegatu zaigu aurten DBHko 4. mailan dauden zuen seme-alabek hurrengo urterako HIRUKIDetik eskaintzen dizkiegun heziketa-ibilbide desberdinak azaltzeko. Badakizue, ibilbide hauek hasteko ezinbestekoa dela DBHko Titulua eskuratzea.

Behin Titulu hori lortuz gero, ikasleei hiru ibilbide agertzen zaizkie: lan munduan sartzea, **Erdi Mailako Heziketa-Zikloak** ikastea edo **Batxilergoa** ikastea. HIRUKIDETIK orain arte izandako ikasketei jarraipena emateko aukera eskaintzen dizuegu eta eskaintza honen azalpena liburuxka honetan aurkezten dizuegu.

Liburuxka honen egitura ondoko atalek osatzen dute:

- I. HIRUKIDEk eskaintzen dizkizuen heziketa-ibilbideak
- II. Batxilergoko ezaugarriak
- III. Batxilergoko eskaintza
- IV. Erdi Mailako Heziketa-Zikloetako ezaugarriak
- V. Erdi Mailako Heziketa-Zikloetako eskaintza
- VI. Erabakiak hartzeko kontuan hartu beharrekoak

Lasaitasun osoz hau dena irakurri eta beharrezko kontsultak eta hausnarketak egin ondoren, zuen hautaketa guri jakinarazteko bete beharko duzue eskuratuko dizuegun orria.

Aprobetxatzen dugu aukera hau ere gureganako adierazten diguzuen konfidantza eskertzeko. Gai honi buruz sor daitekeen edozein zalantza argitzeko, jo zaitezte dagokion tutorearengana.

Eskerrik asko zuen arretagatik eta agur bero bat.

Izpta.: DBH4.eko tutoreak

DBH eta Batxilergoko koordinatzaileak

Hirukideko hiru zuzendariak

I. HIRUKIDE-k eskaintzen dizkizuen heziketa-ibilbideak

DBHko Titulua lortu ondoren ikasten jarraitzeko bi aukera dauzkazu: Batxilergoa edo Erdi Mailako Zikloak (Lanbide Heziketa) :

❖ **Batxilergoa** :

1.- Goi Mailako Zikloetara bakarrik bideratua dagoena

oharra: halere, gogoratu Goi Mailako Lanbide Heziketatik Unibertsitatera sartzeko aukera badagoela.

2.- Goi Mailako Zikloetara edota Unibertsitatera bideratuak daudenak:

- a) Zientzietatik **Marrazketa** ikasi nahi duena
- b) Zientzietatik **Biologia** ikasi nahi duena
- c) **Gizarte-Zientziak** (Letrazkoa)
- d) **Humanitateak** (Letrazkoa)

Eta honetaz gain, Batxilergoko aurreko <u>ibilbide guztietan</u> eskaintzen dizuegu <u>Batxilergo Eleanitza</u> ikasteko aukera.
--

❖ **Erdi Mailako Heziketa-Zikloak** : Merkataritza eta Administrazio-Kudeaketa

II. Batxilergoko ezaugarriak

- **Unibertsitatera** edo **Goi Mailako Lanbide Heziketarako** prestakuntza eskaintzen dizu. Gogoratu Unibertsitatera sartzeko, Batxilergoa gaindituz gain, Selektibitatea ere gainditu behar dela.
- Batxilergoa **bi mailetan** dago antolatuta eta ikasle bakoitzaren egoerara hobeto egokitzeko, **heziketa-ibilbide desberdinak** eskaintzen dizkizuegu.

- **1. mailatik 2.era igarotzeko**, gehien bi irakasgai gainditu gabe izan behar ditu
- Ingelesaren ezagupena eta erabilpena bereziki bultzatzeko aukera ere eskaintzen dizuegu **Batxilergo Eleanitza** ikasiz.
- Batxilergoa lau **modalitateetan** dago antolatuta:
 - Teknologia Batxilergoa
 - Natur eta Osasun-Zientzien Batxilergoa
 - Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa
 - Arte Batxilergoa¹
- ikasleek hiru motatako **irakasgaiak** ikasiko dituzte:
 - √ **irakasgai komunak:** Batxilergoko ikasle guztiek ikasiko dituztenak. Ondokoak dira:
Gaztelania, Euskara, Ingelesa, Filosofia, Erlijioa, Gorputz Hezkuntza (1.) eta Historia (2.). Honez gainera, tutoretza ordua izango dute 1. mailan.
 - √ **modalite bakoitzeko irakasgaiak:** modalitate bakoitzari irakasgai batzuk dagozkio eta hauetariko batzuk modalitate desberdinetan agertzen dira. Ikasleek **ikasturte bakoitzean hautatutako modalitateko 3 irakasgai** ikasi behar dituzte.
 - √ **aukerako irakasgaiak:** maila bakoitzean hauetariko **bat** ikasi behar dute.
- Hau dena antolatzeko, **1. mailan 32 klase-ordu eta 2. mailan 33** izango dituzte. Klase guztiak goizeko ordutegian ematen direnez, **arratsaldeak libre** geratzen dira.
- Etapa honetan **Tutoretza** bai taldearekin eta baita ere ikasle bakoitzarekin pertsonalizatua ezinbestekoak dira etorkizuneko ikasketak eta ondorengo lanbide-bizitza momentu honetan bereziki definitzen ari direlako.

¹ Hirukidek ez du eskaintzen aukera hau

III. Batxilergoko eskaintza

1. Zikloetara bideratua dagoena (Teknologi Batxilergoa)

Goi Mailako Lanbide Heziketa ikasi nahi dutenentzat dago pentsatuta Ibilbide hau. Batxilergo hau diseinatzeko orduan, kontutan hartu dira goi mailako ikasketa horiek jarraitzeko ezinbestekoak diren jakintzetako oinarriak finkatu behar direla.

Aukera hau hartzen duzuenok kontutan hartu behar duzue ere, Goi Mailako Zikloa gainditu ondoren, badagoela Unibertsitatera sartzeko aukera bat.

Ikasiko dituzuen jakintzagaiak:

1. Maila	2. Maila
<u>Modalitatekoak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Matematika I • Marrazketa I • Industria-Teknologia I 	<u>Modalitatekoak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Matematika II • Fisika-Kimika • Industria-Teknologia II
<u>Aukerako bat:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Informatika <u>edo</u> Eleanitza I 	<u>Aukerako bat:</u> <ul style="list-style-type: none"> • O.L.M.D. (*) <u>edo</u> Eleanitza II

(*) Ordenadorez Lagundutako Marrazketa eta Diseinua

2a) MARRAZKETA ikasi nahi duena (Natur eta Osasun-Zientzien Batx.)

Ibilbide hau **Marrazketa** irakasgaien prestakuntza on bat eskatzen duten goi mailako ikasketetan pentsatzen ari denentzat aproposa legoke. Bestaldetik ere, egon daitezke beste batzuk, zientziak gustokoak dituztenak eta Biologia arloa gustatzen ez zaiena.

Gogoratu ere, aukera hau hartzekotan, Batxilergoa gainditu ondoren Unibertsitatera edota Goi Mailako Lanbide Heziketa ikasteko aukera biak zabalik mantentzen direla.

Ikasiko dituzuen irakasgaiak:

1. Maila	2. Maila
<u>Modalitatekoak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Matematika I • Fisika-Kimika • Marrazketa I 	<u>Modalitatekoak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Matematika II • Fisika • Marrazketa II
<u>Aukerako bat:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Informatika <u>edo</u> Eleanitza I 	<u>Aukerako bat:</u> <ul style="list-style-type: none"> • O.L.M.D. (*) <u>edo</u> Eleanitza II

(*) Ordenadorez Lagundutako Marrazketa eta Diseinua

2b) BIOLOGIA ikasi nahi duena (Natur eta Osasun-Zientzien Batx.)

Ibilbide hau **Biologia** irakasgaien prestakuntza on bat eskatzen duten goi mailako ikasketetan pentsatzen ari denentzat aproposa legoke. Bestaldetik ere, egon daitezke beste batzuk, zientziak gustokoak dituztenak eta Marrazketa arloa gustatzen ez zaiena.

Gogoratu ere, aukera hau hartzekotan, Batxilergoa gainditu ondoren Unibertsitatera edota Goi Mailako Lanbide Heziketa ikasteko aukera biak zabalik mantentzen direla.

Ikasiko dituzuen irakasgaiak:

1. Maila	2. Maila
<p><u>Modalitatekoak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Matematika I • Fisika-Kimika • Biologia-Geologia 	<p><u>Modalitatekoak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Matematika II • Biologia • Kimika
<p><u>Aukerako bat:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Informatika <u>edo</u> Eleanitza I 	<p><u>Aukerako bat:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Laborategia <u>edo</u> Eleanitza II

2c) Gizarte-Zientziak (Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa)

Ibilbide hau Gizarte-Zientziekin lotura duten goi mailako ikasketetan pentsatzen ari denentzat aproposa legoke (letrazko ikasketak dira). Gogoratu ere, aukera hau hartzekotan, Batxilergoa gainditu ondoren Unibertsitatera edota Goi Mailako Lanbide Heziketa ikasteko aukera biak zabalik mantentzen direla.

Ikasiko dituzuen irakasgaiak:

1. Maila	2. Maila
<p><u>Modalitatekoak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-Zientzietako Matematika I • Historia • Ekonomia 	<p><u>Modalitatekoak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-Zientzietako Matematika II • Geografia • Ekonomia eta Enpresa-Antolaketa <u>edo</u> Artearen Historia
<p><u>Aukerako bat:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Psikologia-Soziologia, Informatika <u>edo</u> Eleanitza I 	<p><u>Aukerako bat:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Zuzenbidea <u>edo</u> Eleanitza II

2d) Humanitateak (Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa)

Ibilbide hau Humanitateekin lotura duten goi mailako ikasketetan pentsatzen ari denentzat aproposa legoke (letrazko ikasketak dira). Gogoratu ere, aukera hau hartzekotan, Batxilergoa gainditu ondoren Unibertsitatera edota Goi Mailako Lanbide Heziketa ikasteko aukera biak zabalik mantentzen direla.

Ikasiko dituzuen irakasgaiak:

1. Maila	2. Maila
<p><u>Modalitatekoak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-Zientzietako Matematika I • Historia • Latina I 	<p><u>Modalitatekoak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Latina II • Geografia • Artearen Historia
<p><u>Aukerako bat:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Psikologia-Soziologia, Informatika <u>edo</u> Eleanitza I 	<p><u>Aukerako bat:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Zuzenbidea <u>edo</u> Eleanitza II

❖ BATXILERGO ELEANITZA:

Batxilergo eleanitza ez da beste batxilergo mota bat, bi ikasturte hauetan ingelesa indartzeko modu bat da. Batxilergo eleanitza edozein batxilergo mota aukeratuta ere, egin dezakezue.

Bertan, batxilergoko maila bakoitzean aukerako irakasgai bat ingelesez emango da, 1. mailan tutoretzarekin batera eta honetaz gain, ingelesa indartuko da gai bezala. Guztira 7 ordu izango dituzue astean ingelesez (2. mailan 6 ordu izango dira). Honela hain garrantzitsua den ingelesa hobetzea lortuko duzue euskara eta gaztelania galdu gabe.

Ingelesez emango diren aukerako irakasgaiak hauek dira:

- 1. mailan: **“Euskal Herriaren historia”**
- 2. mailan: **“Zientzia, teknologia eta gizartea”**

IV. Erdi Mailako Heziketa-Zikloetako ezaugarriak

- **Lanbide Heziketako zikloak familietan** dago antolatuta eta guztietan badaude modulu tinko batzuk:
 - Prestakuntza eta Lan-Orientabidea
 - Kalitatea eta etengabeko hobekuntza
 - Lantokiko prestakuntza (enpresetan egiten diren praktikak)
- **Zikloetako lehenengo urtean.** Lantokiko Prestakuntza modulua izan ezik, beste guztiak ikasten dira. Moduluen iraupena desberdina izango da orduetan.
- **Zikloetako bigarren urtean.** Lantokiko Prestakuntza modulua (praktikak enpresetan) egiten da. Lantokiko Prestakuntzaren iraupena zikloaren arabera izango da.
- Bukatutakoan **Lanbide Gaitasunen Txartela** ematen zaie heziketa zikloan lortutako gaitasunak egiaztatzeko.
- Ikasle bakoitzaren egoerara hobeto egokitzeko, **hiru heziketa-ibilbide desberdin** eskaintzen dizkizuegu:
 - **Merkataritza bakarrik** ikastea
 - **Administrazio-Kudeaketa bakarrik** ikastea
 - Aipatutako **bi zikloak** ikastea (kasu honetan, modulu batzuk baliozkotzen direnez, ez dira errepikatu behar)
- Zikloa gaindituz gero, hau da, dagozkion **modulu guztiak gaindituz**, dagozkion lanbideko **Teknikari titulua** eskuratzen da.
- Ikasleek bukatzen dutenean, **lana** bilatzen zaie, enpresen eskaeraren arabera. Langai-k eginiko azken urteko inkestan, gure ikasleen %85 lanean zegoen bere ikasketak amaitu ondorengo ikasturtean.

- Ikasketak aurrera eramateko **teknologi berrien erabilpena** ezinbestekoa zaigu.
- Etapa honetan **Tutoretza**, taldearekin eta ikasle bakoitzarekin pertsonalizatua ere ezinbestekoak da. Izan ere, etorkizuneko ikasketak eta ondorengo lanbide-bizitza momentu honetan bereziki definitzen ari dira.
- Hau dena antolatzeko, aurreneko ikasturtean **30 klase-ordu** izango dituzte. Klase guztiak goizeko ordutegian ematen direnez, **arratsaldeak libre** geratzen dira.
- **Praktiketako antolaketa**: Enpresaren beharraren arabera antolatzen dira. Hauetan ikastetxean ikasitako ezagutza eta trebetasuna areagotuko dituzte.
 - Ziklo osoak irauten duen denboraren %25 gutxi gora-behera.
 - Zikloaren bukaeran egiten dira.
 - Egunero betetzen dira, 5 orduz, gutxienez, eta 7, gehienez.
 - Merkataritza zikloan 400 ordu betetzen dira.
 - Administrazio-kudeaketa zikloan 300 ordu betetzen dira.
- Gogoratu **Goi Mailako Zikloak egiteko Batxilergoa ikasi behar duzula**. Momentu honetan, badago bide bakar bat Erdi Mailako Zikloetatik Goi Mailakoetara igarotzeko, hau da, 20 urte beteta izanik, Batxilergoko edukietan oinarrituta dagoen froga bat gainditzea, baina errealitatean aukera hau ia ezinezko bihurtzen da.

V. Erdi Mailako Heziketa-Zikloetako eskaintza

1. MERKATARITZA (1.400 ordu)

ZER IKASIKO DUZU?

- Salmenta eragiketak
- Salmenta-puntuaren animazioa
- Saltoki txikien administrazioa eta kudeaketa
- Biltegiko lanak
- Helburu orokorreko informatika-aplikazioak (*)
- Lan prestakuntza eta orientabidea (*)
- Euskara
- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza (*)

... eta gainera 400 orduko Lantokiko prestakuntza (praktikak lantokian bertan)

(*) Aurreko urtean, Administrazio Kudeaketa zikloa gaindituta izanez gero, modulu hauek baliozkotzen dira.

2. ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA (1.300 ordu)

ZER IKASIKO DUZU?

- Komunikazioa, informazioaren artxiboak
- Salerosketaren administrazio-kudeaketa
- Pertsonalaren administrazio-kudeaketa
- Kontabilitate orokorra eta diruzaintza
- Informatika-aplikazioak (*)
- Oinarrizko finantza eta aseguru-produktu eta zerbitzua
- Administrazio-kudeaketa publikoaren printzipioak
- Ingelesa (Hizkuntza Teknikoa)
- Lan prestakuntza eta orientabidea (*)
- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza (*)

... eta gainera 300 orduko Lantokiko prestakuntza (praktikak lantokian bertan)

(*) Aurreko urtean, Merkataritza zikloa gaindituta izanez gero, modulu hauek baliozkotzen dira.

VI. Erabakiak hartzeko kontuan hartu beharrekoak

- Ahal den neurrian, Heziketa-ibilbideak **aurrerago jarraituko diren ikasketekin edota lanbide bizitzarekin lotuta** egon behar du. Kasu askotan, honelako erabakiak oraindik ez daudenez hain finkatuta, HIRUKIDetik **ahalik eta ibilbide zabalenak** eskaintzen zaizkizue.
- Halere, ibilbide bat hautatu behar denez, eta honelako bidegurutzetan gertatzen den bezala, argi izan behar dugu hautaketa bakoitzarekin beste ibilbideak alde batera uzten ditugula. Zalantza asko badugu, **gutxien murrizten digun ibilbidea** hartu beharko genuke.
- Unibertsitatera sartzeko aukera izateko Batxilergoko ibilbideetariko bat hartzen baduzu, **Selektibitatean** izango dituzun irakasgaiak ondokoak izango dira:

Unibertsitaterako sarrera-aukerak	Batxil. modalitatea
Zientzia-Teknologia Azterketan: MATEMATIKA II eta FISIKA (*)	* Natur eta Osasun-Zientziak
Osasun Zientziak Azterketan : BIOLOGIA eta KIMIKA (*)	* Natur eta Osasun-Zientziak
Gizarte Zientziak Azterketa : GIZARTE ZIENTZIETAKO MATEMATIKA II eta GEOGRAFIA (*)	* Giza eta Gizarte-Zientziak
Giza Zientziak (Humanitateak) Azterketa : LATINA II eta ARTE (*)	* Giza eta Gizarte-Zientziak

(*) *gainera, dagokion modalitateko hirugarren irakasgaiaren azterketa*

- Kontuan hartzekoak ezinbestekoak dira ere ikastetxean egin zaizkizun **Orientazio frogetako emaitzak** eta horrekin lotuta egon diren **tutoreekin izandako elkarrizketak eta orientazioak**.
- Gaitasuna oso garrantzizkoa den arren, ez ahaztu askotan zerbait egitera **motibatuak sentitzen garenean**, pentsatzen genuen baino askoz gehiago saiatzen garela eta gai garela oztopo asko gainditzeko.
- ...